

BILERROREN KUDEAKETA POLITIKA

Trenen arloko integrazio eta ingeniari-tza proiektuen diseinuan, garapenean, ekoizpenean, instalazioan eta saldu osteko zerbitzuan espezializatutako konpainia gara. Proiektu horiek azpiegitura teknologikoan, eragiketa-irtenbideetan eta bezeroen negozioaren optimizazioan oinarritzen dira.

Bilerrok gure interes-taldeen beharrak eta itxaropenak asetzera bideratuta dago, hau da, bezeroak, erakundeak eta erakundearentzat lan egiten duten pertsonak, gizartea, hornitzaileak eta beste aliantza batzuk eta akziodunak.

Bilerrok bikaintasuna eta etengabeko hobekuntza bilatzen ditu beti, bai bere soluzio eta produktu eta zerbitzuetan, bai bere kudeaketa sistema eta prozesuetan.

Horretarako, hona bideratzen gara:

- Produktuak epe barruan ematea, fidagarriak, aplikatu beharreko kontratu, lege eta teknika baldintza guztiak eta produktuaren segurtasun baldintzak betetzen dituztenak.
- Kalitatearen, segurtasunaren eta osasunaren eta ingurumenaren arloko prozesuen kudeaketa arduratsua eta hobekuntza.
- Akatsak prebenitzeko kultura sustatzea, eta prebentzioaren arloko prestakuntza bultzatzea erantzukizun-maila guztietan.
- Prebentzioa gure jarduera eta prozesu guztietan txertatzea.
- Politiken kudeaketa integrean pertsonen kontsulta eta parte-hartzea maximizatzea.
- Lan-baldintza seguruak eta osasungarriak ematea, lesioak eta osasunaren narriadura prebenitzeko.
- Gure produktuen, prozesuen eta konponbideen ingurumen-inpaktua murriztea, hondakinen sorrera minimizatzeari eta kontsumoak optimizatzeari garrantzi berezia emanez.
- Kutsadura prebenitzera bideratutako helburuak eta xedeak ezartzea eta berrikustea.

Eta honetan oinarritzen gara:

- Gure helburuen kudeaketan eta lorpenean parte hartzen duten pertsonen talde bat.
- Eskura dauden teknikarik onenak aplikatzea eta produktu, zerbitzu eta soluzioetan etengabe berritzea.
- Lan-baldintzak hobetzea eta ingurumenarekin elkarrekintzan aritzea.
- Erakundearen jardueran aplikagarriak diren lege, kontratu eta teknika-betekizunak betetzea.

Zuzendaritza



EU IPO
EUROPEAN UNION
INTELLECTUAL PROPERTY OFFICE

